

IX. LEGEGINTZALDIA
2015-2019 LEGEALDIA
UXUE BARKOS BERRUEZOren
INBESTIDURA-HITZALDIA
(GEROA BAI)

TOKI-ADMINISTRAZIOA

Toki-administrazioari dagokionean, etorkizuneko Gobernuaren erronka nagusia da hasiko den legealdian gure toki-administrazioaren aldaketa atzerazinarari heltzea. Izan ere, erreforma hori aho batez eskatu da Parlamentu honetan behin baino gehiagotan, eta orain arte Gobernuak ez da gai izan arrakastaz egiteko. Horretarako, datozen bi urteetan, tokikoaren egungo egoerari buruzko diagnostikoa egitea proposatzen dugu, eta, horrela, toki erakundeek horren partaide direla sentitu behar dute; beraz, prozesua parte-hartzailea izango da. Behin diagnostikoa eginda, eskumen-esparrua, finantzaketa-esparrua edo Nafarroako toki-erakundeentzat nahi dugun egitura edo mapa definituko ditugu, eta legealdiaren bigarren zatian horretarako beharrezkoak diren legegintza-proiektuak garatuko ditugu.

Baina hori erronka nagusia izanik, zuzendu nahi dudana Gobernuak berehala jorratuko ditu itxaron ezin duten zenbait neurri. Era horretan,

- Berehala bermatuko dugu toki erakundeek datozen bi urteetan jaso ditzatela transferentzia arrunten funtsaren gainean egun onartuta dituzten zenbatekoak, behar bezala eguneratuta KPI+2rekin.
- Irtenbide iragankorrak eta funts espezifikoak ezarriko ditugu, aukera ekonomikoen barnean, erakundeek aukera izan dezaten inbertsio presazkoenak garatzeko, urteak baitaramatzate gauzatu gabe aurreko Toki Azpiegituren 2009-2012 Planaren blokeoa dela-eta, beste plan bat diseinatu eta abian jartzen den bitartean.
- Juridikoki onartezinak diren baldintzak kenduko ditugu, Nafarroako Kontseiluak berak adierazi bezala; esate baterako, Ikurren egungo Legea bete beharra, Udalei dagozkien kopuruak jasotzeko, korporatiboen ekarpenak finantzatzen dituztenak.